

DISKOA



Izenburua: '...bi belarri entzuteko'.
Egilea: Hainbaten artean. **Edukia:** Hogei abesti biltzen dira. **Marrakizkiak:** Eider Eibar.
Iraupena: Ordubete. **Argitaletxea:** Elkar.

rula Mirula, Urretxindorrek, Imanol...

Kasu askotan, abestien bertsiogehiago daude, eta zaila izan da aukeraketa egitea. Leteren *Amaren bularra* kantu ezagunaren kasuan, adibidez, interprete berezi bat jarri dugu. Haur kantu txapelketa batean, oso modu berezian abestu zuen Baijorriko 14 urteko Lore Lasaga gazteak, eta, asko gustatu zitzaigunez, diskora ekarri dugu.

Aurrekoetan erabilitako irizpi-deak jarraitu ditugu oraingoan ere. Ea beste diskoak bezainbeste gustatzen zaien entzuleei!

Hirugarren diskoa atera baduzue, beste biak arrakasta edo harrera ona izan duten seinale, ezta?

Aurreko hirurek oso erantzun ona izan dute, eta horregatik animatu gara laugarrenarekin. Jendeak erraz eza gutzen du bilduma-lehena horia, bigarrena urdina, hirugarrena gorria eta, oraingoa, berdea.

Oraindik geratuko zen kantaren bat kanpoan, ezta? Laugarren disko bat osatzeko moduan?

Beti geratzen dira kantuak. Baina, oraingoz, ez dugu asmorik disko gehiago argitaratzeko. Orain arte egindako lana plazaratzea da gure asmoa.

Diskoarekin lotuta, kontzertu bat eman zenuten iaz Kursaalean.

Bai, iazko abenduan *Kantu txikiak* izeneko ikuskizuna estreinatu genuen Donostiako Kursaalean, eta izugarriko arrakasta izan zuen. Kontzertuaren oinarria disko hauetako kantuak izan ziren, baina gonbidatu batzuk ere ekarri genituen: Irrien Lagunak klubeko pertsonaiak, Urtxintxa eskola, Eñaut Elorrieta eta Uxue Alberdi, Xabi Solano eta DZ, Xirula Mirula, Miren Fernandez eta Antxon Sarasua, bere taldearekin.

Aurten ere kontzertuak egingo ditugu Euskal Herriko hainbat txokotan; horien artean, Kursaalean. Oraindik forma ematen ari gara, baina, iaz bezala, familiek elkarrekin ondo pasatzeko, kantatzeko eta dantzatzeko parada izango dute.

Josebe Ormazuri

DISKOAREN KOORDINATZAILEA

«Umeeek kantutegi osatu samar bat izango dute kantatzeko eta jolasteko»

Emozioak eta sentimenduak adierazteko, euskara lantzeko edo jolasteko aukera eskaintzen dute kantuak. Horregatik da musika hain garrantzitsua haurren garapenean. Euskarazko oinarritzko kantuak bildu, eta disko sorta batean jaso ditu Elkar argitaletxeak. Hau da bildumako laugarrena.

2006an hasi zenuten proiektuaren laugarren diskoa kaleratu duzue. Nolatan abiatu zenuten proiektua?

Disko honen aurretik, beste hiru argitaratu ditugu: *Txikia izanik*, *Handitzen handitzen* eta *Asko maite zaitut, nik*.

Umeeek txikitzen entzuten edo abesten dituzten kantu oinarritzkoenak biltzea izan zen lehen asmoa. Baina, pixkanaka, euskal kantu tradizionalak gehituz joan gara. Haurrek oso ondo barneratzen dituzte gure abesti herrikoiak, batez ere irakasle, guraso edo gertuko helduekin konpartitzen badituzte. Azkenean, umeeek kantutegi osatu samar bat izango dute kantatzeko eta jolasteko.

Zein da proiektuaren asmoa edo helburua?

Helburua da umeeek ondo pasatzea eta abestiak ikastea, batez ere. Baina badugu beste helburu bat: guraso edo ingurukoek ere

beraiekin batera kantuak ikasi eta abestea. Euskararen eta euskal kantuaren transmisiorako bitarteko oso egokia da musika, kantuak.

Lehen CDan haur oso txikientzako abesti ezagunak bildu genituen. Pixkanaka, baina, kantu tradizionalak sartu ditugu beste diskoetan.

Zer jaso duzue diskoan?

Gainerako beste hiru diskoetan bezala, hogeikantu sartu ditugu *...bi belarri entzuteko* diskoan ere.

Kasu honetan, laugarrena izanik, pisu gehiago du kantutegi tradizionalak, eta, beraz, haur koxkorragoentzako diskoa dela esan daiteke. Alegia, lehenik beste diskoetan bildu genituenak kantatu eta ikasi dituzten horientzat da.

Denetariko abestiak daude diskoan: *Sehaska kanta* (Leteren *Amaren bularra*), *Aitorren hizkuntza zaharra*, *Egun da Santi mamirña* eta antzeko klasikoak *Bakarrik eta libre*, *Behin betiko*, *Txori txiki polit bat* eta antzeko abestiekin nahasten ditugu diskoan.

Norenak dira abestiak?

Kasu askotan, herrikoiak dira, baina badira guretzat oso inportanteak izan diren egileak ere: Aresti, Lete, Imanol Urbieto, Bilintx... Aurreko diskoetan bezala, askotariko interpreteek abesten dute disko honetan ere. Oso garai desberdinetakoak eta oso bestelako kantatzeko modua dutenak: Mikkel Laboa, Xabier Lete, Oskorri, Xi-

